



# Etorkizuneko Gipuzkoaren ikuspegi partekatua eraikiz



**Ira. 08 2023**

**Kod. G19-23**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2023

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 08 2023

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



# Azalpena

Gizarte demokratikoez politika egiteko modu berriak bilatzeko erronkari egin behar diote aurre, alderdi interesdunak eta, bereziki, gizarte zibila eta herritarrak inplikatzen. Etorkizuna Eraikiz 2016an sortu zen, politikarekiko gero eta desatxikimendu handiagoko testuinguru batean, populismoa eta muturreko ideologiak indartzen ari ziren une batean. Etorkizuna Eraikiz ekimenaren proposamena Gipuzkoako Foru Aldundiak mota guztietako eragileen arteko lankidetzan oinarritutako kultura politiko berri baten alde egindako apustuan oinarritzen da. Politikan parte hartzea eta inplikatzea gonbidatzen du, muturreko jarrerak saihesteko eta gizarte antolatuarekin eta, oro har, klase politikoari eta administrazio publikoei mesfidantzaz begiratzen dioten herritarrekin zubiak eraikitzen bitarteko gisa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko bi legealdietan (2015-2019 eta 2019-2023) Etorkizuna Eraikiz bultzatzeko egin duen apustuak emaitza nabarmenak eman ditu, eta gaur egun guztiz finkatuta dago. Horregatik, erabat zentzuzkoa da legealdi berrian apustu horri eustea eta indartzea. Are gehiago, baldintza egokiak daude haren garapenean jauzi kualitatibo bat emateko, eta jauzi hori stakeholderrak prozesu horretan gehiago inplikatuz egin beharko da. Horretarako, funtsezkoa da horien guztien ekintza bideratuko duen Gipuzkoaren etorkizunari buruzko ikuspegi partekatua bat eraikitzea. Ildo horretan, EHU buru duen GI 2030 prozesuak (2022-2023), hain zuzen ere, balio estrategiko handia du ikuspegi hori modu parte-hartzailean eraikitzen joateko; izan ere, lurraldearen lehentasunak identifikatzeaz gain, parte hartzeko prozedura definitzeko eta sistematizatzeko eta lurraldean prospekzio kolektiboko zeregin hori egiteko gaitasunak sortzeko ere balio behar du. Udako ikastaro hau aukera paregabea da orain arte GI 2030en esparruan egindakoa ezagutzeko eta datorren legealdiari begira foru gobernu berriak planteatzen dituen hausnarketa estrategikoak partekatzeko.

Hala ere, prozesu hori ez da modu isolatuan gertatzen, baizik eta testuinguru global oso zehatz batean, eta, horrek, Gipuzkoan planteatzen dena baldintzatzen du. Aldi berean, hemen, Gipuzkoan, egindakoa inspirazio iturri izan daiteke Europan eta mundu zabalean. Horregatik, ikastaroaren lehen zatian demokraziaren eta gobernatzaren egoera aztertuko da, Europaren ikuspegitik begiraturik. Ildo horretan, Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziaren emaitzak balioztatzea eta horiei buruz hausnartzea lagungarria eta erreferentea izan daiteke Gipuzkoarentzat; izan ere, konferentzia horren helburua zen Europar Batasuna gaur egungo eta etorkizuneko erronketarako prestatzea, herritarrei beren kezkek eta anbizioak adierazteko aukera emanez eta, Europako erakundeetako, parlamentu nazionalak eta beste alderdi interesdun batzuetako ordezkariekin batera, etorkizunerako orientabideak emanez. Helburu horrek, Gipuzkoa mailan, GI 2030a abian jartzea ere eragin du.

## Helburuak

Gobernatzaren nazioarteko ikuspegi bat eskaintzea gero eta nahasiagoa eta azkarragoa den mundu honetan, Europak demokraziaren eta justizia sozialaren balioak bultzatzeko izan behar duen lidergoa aztertuz.

Esparru global horretan, Gipuzkoaren ikuspegi partekatua eraikitzen oinarri izan behar duten printzipioak partekatzea, foru gobernu berriak planteatzen dituen hausnarketetatik eta GI 2030en esparruan (EHU buru duen prozesua) gertatzen ari direnetatik abiatuta.

Etorkizuna Eraikiz ekimenak irudikatzen duen eraikuntza kolektiboko prozesua balioestea, demokraziaren krisiari aurre egiteko erreferentziatzeko eredu gisa hartuta, konpromiso zibikoa indartuz.

## Antolakuntza

# Programa

2023-09-08

08:45 - 09:00 Erregistroa /Registro

---

09:00 - 09:20 Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena:

**Eider Mendoza Larrañaga** | Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa - Diputatu nagusia / Diputada general

**Agustin Erkizia Olaizola** | UPV/EHU - Gipuzkoako errektoreordea / Vicerrector del Campus de Gipuzkoa

---

09:20 - 09:30 “Jardunaldiaren aurkezpena”Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

**Sebastian Zurutuza Mujika** | Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa - Estrategiako zuzendaria / Director de estrategia

---

09:30 - 10:50 “Demokrazia eta gobernantza globala: europar ikuspegia / Democracia y gobernanza global: perspectiva europea”

Gobernantzaren etorkizuna nazioarteko testuinguruan / El futuro de la gobernanza en el contexto internacional

**Elsa González Esteban** | Universitat Jaume I - Filosofia eta Soziologia Saileko Filosofia Moraleko irakasle titularra / Profesora Titular de Filosofía Moral del Departamento de Filosofía y Sociología

El futuro de Europa / Europaren etorkizuna

**Anthony Zacharzewski** | Democratic Society - Lehendakaria /Presidente

---

10:50 - 11:15 Atsedenaldira-kafea / Pausa-café

---

11:15 - 12:45 “Gipuzkoatik nola irudikatzen da etorkizuna? / ¿Cómo se visualiza el futuro desde Gipuzkoa?”

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuspegia Etorkizuna Eraikizen esparruan / La visión de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el marco de Etorkizuna Eraikiz

**Eider Mendoza Larrañaga** | Gipuzkoako Foru Aldundia - Diputatu nagusia / Diputada general

GI 2030: Gipuzkoaren ikuspegi partekatua eraikitzen

**Antonio Casado da Rocha** | UPV/EHU - Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko irakaslea / Profesor de Filosofía de los Valores y Antropología

**Uxue Zugaza Goienetxea** | UPV/EHU - Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko irakaslea / Profesora de Filosofía de los Valores y Antropología

---

12:45 - 13:00 Graphic Recording

---

13:00 - 13:45 Mahai ingurua: “Lankidetzazko gobernantza: lurraldearen eronkei modu kolektiboan erantzuteko gaitasunak eta palankak / La gobernanza colaborativa: capacidades y palancas para responder a los retos del territorio de forma colectiva”

**Sebastian Zurutuza Mujika** | Gipuzkoako Foru Aldundia - Estrategiako zuzendaria / Director de Estrategia (Moderatzailea)

**Elsa González Esteban** | Universitat Jaume I - Filosofia eta Soziologia Saileko Filosofia Moraleko irakasle titularra / Profesora Titular de Filosofía Moral del Departamento de Filosofía y Sociología

**Anthony Zacharzewski** | Democratic Society - Lehendakaria / Presidente

**Eider Mendoza Larrañaga** | Gipuzkoako Foru Aldundia - Diputatu nagusia / Diputada general

**Antonio Casado da Rocha** | UPV/EHU - Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko irakaslea / Profesor de Filosofía de los Valores y Antropología

---

13:45 - 14:00

Ondorioak / Conclusiones

---

## Zuzendaritza



### **Sebastian Zurutuza Mujika**

Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación Foral de Guipúzcoa

---

Kargua: Estrategiako zuzendari nagusia (2015-gaur egun). Ikasketak: Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna (EHUko Administrazio Publikoko unibertsitate espezialista). Hizkuntzak: euskara (altua); gaztelania (altua); ingelesa (ertaina). Ibilbide profesionala eta politikoa: • Konpromiso Instituzionalerako Zerbitzuko burua. Gipuzkoako Foru Aldundia (1993-2015). • Kupoaren eta Finantza Ekarpenen Ataleko burua. Gipuzkoako Foru Aldundia (1992-1993). • Irakasle elkartua. EHU (Zuzenbide Fakultatea) (1988-1994). • Ekonomialaria. Gipuzkoako Foru Aldundia (1987-1992). • Irakaslea. Lanbide Heziketa (Elgoibar eta Usurbil) (1982-1987).



### **Antonio Casado da Rocha**

UPV/EHU

---

Filosofian doktorea, ikertzailea eta irakaslea da Gipuzkoako campusean (EHU). AKTIBA-IT taldeko ikertzaile nagusia da. 2002tik 2012ra Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Etika Asistentzialeko Batzordeko kidea eta idazkaria izan zen. 2008an Victor Grífols y Lucas Fundazioaren Bioetikako Ikerketa Saria jaso zuen. 3 seiurteko ditu ikerkuntzan, eta 7 doktorego tesi zuzendu eta defendatu ditu. 3 liburu argitaratu ditu egile bakar gisa eta 2 liburu kolektibo argitaratu ditu. 2012tik 2017ra bere fakultateko Ikerketa eta Mugikortasuneko dekanordea izan zen, eta 2017tik 2021era, EHUko Gipuzkoako campuseko Unibertsitate Hedakuntzako zuzendaria. Filosofiaren arloko argitalpen akademikoez gain, Bioetika, Psikologia, Zuzenbidea eta Soziologiako nazioarteko aldizkarietan ere argitaratu du.

## Irakasleak



### **Elsa González Esteban**

---

Filosofia Moraleko irakasle titularra da Filosofia eta Soziologia Sailean. Bere ikerketa lana etika aplikatua eta erakundeen gobernantza eta kudeaketa sistema etikoetan oinarritzen da. Etika Praktikoa eta Demokrazia Ikerketa Taldeko ikertzailea da. Estatuko eta nazioarteko artikulua eta liburuetan argitaratutako 50 lan baino gehiagoren egilea da, eta ikertzaile nagusi gisa parte hartu du erakunde publikoek finantzatutako estatuko eta nazioarteko proiektuetan. Gaur egun, HORIZONTE 2020: ETHNA System (Ethics Governance System for RRI in Higher Education, Funding and Research Centres) europar proiektuaren eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren “adimen artifizialerako fidagarritasunaren etika aplikatua” proiektuaren ikertzaile nagusia eta koordinatzailea da. Halaber, lan handia egin du ezagutza gizarte eta ekonomia sarera transferitzeko, hainbat proiekturen bidez, bai eta erakundeekin lankidetzan ere; horien artean, nabarmentzekoa da gaur egun Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeko kide gisa parte hartzen duela 2022ko urtarriletik.



### **Eider Mendoza Larrañaga**

---

Kargua: Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia. Ikasketak: Enpresan lizentziatua (École de Commerce Européenne, Bordeaux, Frantzia), espezializazioa Nazioarteko Merkataritzan. Hizkuntzak: euskara, gaztelania eta frantsesa: hirueleduna. Ingelesa: maila ertaina. Ibilbide profesional eta politikoa: • 2001. urtera arte: Irungo nazioarteko logistika/garraio enpresa baten lan egin zuen. • 2001-2011: legebiltzarkidea Gasteizen. Taldeko koordinatzailea eta gizarte politiketako bozeramailea. • 2011-2015: Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea. Talde politikoko koordinatzailea eta BBNNetako lehendakariordea. • 2015-2019: Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria. 2019-2023: GFako Gobernantza diputatua eta bozeramailea • Kolaboratzailea hainbat komunikabidetan, prentsan zein telebistan. Bestelakoak: lau seme-alaben ama.



### **Anthony Zacharzewski**

---

Bere lana hiru gauzaren elkarreraginetik dator: politika, parte-hartzea eta teknologia. Beti izan da politikazale amorratua. Unibertsitatean, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, iraultza

digitalaren lehen olatua bizi izan zuen, eta bazekien eragin handia izango zuela politikan eta demokrazian. Azkenik, unibertsitatean zegoela, Atenaseko demokraziaren historian espezializatu zen, eta ikusi zuen demokrazia hark lehen nola funtzionatzen zuen... eta nola utzi zion funtzionatzeari. 2006an, bost lagunekin, Democratic Society sortu zuen, parte hartzeko modu berriekin esperimentatzeko. Lau urte geroago, bere lana utzi zuen DemSoc-en lanaldi osoan lan egiteko. Eta hamar urte geroago, indarra hartzen jarraitzen du. Beti saiatu izan da gobernuaren errealitateak eta parte hartzeko aukerak bat egiten duten lekuetan lan egiten, kale kantoietatik hasi eta Europako erakundeetaraino. Bere ustez, herriaren energia, ideiak eta agindua gobernu eraginkor eta ireki batekin batzen badira, mundua leku seguruagoa, hobea eta berdeagoa bihur daiteke.



### **Uxue Zugaza Goienetxea**

---

Zientzia Politikoan eta Kudeaketa Publikoan graduatua EHUn (2015) eta Demokrazian eta Gobernuan Masterra UAMen (2017). Gaur egun, doktoratu aurreko ikertzaile gisa lan egiten du EHUn, interseksionalitatearen eta berdintasun politiken arteko lotura aztertzen duen doktorego-tesi batekin. Parte Hartuz Ikerketa Taldearen Feminismoak eta Demokrazia ardatzean parte hartzen du.

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2023-09-08 ARTE

[Matrikula doan](#)

0 EUR



# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa